


# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Algetan oinarritutako biodiesel

BEROTEGI-EFEKTUAREN arrazoi nagusia erregai fosilak erabiltzea dela jakina da. Erregai horiek erabiltzean ez ezik, lortzeko prozesuetan ere sortzen da karbono dioxidoa.

Algen propietateak aztertu dituzte Tom Beer ikerlariak eta haren ekipoak, Australiako ikerketa-erakunderik ospetsuenetakoa den CSIROko kideek. Biodiesel sortzea zuten helburua. Algen abantaila nagusia sorreran dago: alga mota batzuk oso ongi hazten dira karbono dioxido asko daukaten inguruetan, eta ohiko biodieselak ez bezala, ez dute lur-eremu berezirik behar hazteko. Hondakin gisa karbono dioxidoa sortzen duten prozesu industrialetan txerta daitezke algen haztegiak.



Algak erretzetik sortuko litzatekeen karbono dioxido kantitatea

ohiko gasolioetatik sortzen dena baino txikiagoa izango litzateke. Dena den, ikerlariak esan dutenez, laborategian emaitza onak dituzten azterketak eskala handian probatu behar dira, beraz bidea egin beharra dago oraindik, helburua gauzatzeko.

## Ibai gorriak Antartikan

ANTARTIKAKO Taylor glaziarreko izoztak gorritz jantzita daude. Kolore horrek aspalditik harritu ditu ikerlariak; orain gutxi, Harvard Unibertsitateko Jill A. Mikucki ikerlariak artikulu bat eman du argitara *Science* aldizkarian, gertakari horren zergatia azalduz.

Aipatu glaziarrean orain lau milioi urte harrapatutako ura omen dago, oxigenorik gabea, oso gazia eta sulfatoduna. Bertan mikrobio-sistema konplexua bizi omen da eta hori da lehen aurkikuntza argigarria, sistema hori fotosintetirik gabe eta kanpoko elikagairik gabe bizi ahal izatea, alegia. Teorian, mikrobioek sulfatoa sulfuro bihurtu behar lukete, baina horren orde, lurreko burdina hartu eta burdina sulfitoa eta burdina oxidoa sortzen dituzte, glaziarrari kolore gorria emanez.

Aurkikuntza honek lagundu egin dezake oso baldintza gogorretan ematen den bizi azaltzeko, eta baita ere Lurretik kanpoko beste planetetan eman litekeena.



Taylor glaziarra.

## Debekatutako botika baten onurak aldarrikatu dituzte

Osteoporosiaren aurka garai batean erabilitako medikamentu batek –geroago debekatua izan zena–, hezurak berrosatzeko propietateak izan ditzakeela uste du Rochester Unibertsitateko ikerlari talde batek. Frantziar Forsteo izena eman zioten sendagai horri; antza denez, hezurak eraikitzen dituzten amazelulak sortzen ditu.

<http://ttiki.com/3056>

## Kazakhstanarrek hezi omen zituzten zaldiak lehenbiziko aldiz

Kazakhstan-en, itsasorik ez duen munduko estaturik handienez, topatu dira gizakiek beren onerako erabilitako lehen zaldien aztarnak. Bidaiatzeko ez ezik, haien okela jateko eta haien esnea edateko erabiltzen hasi ziren zaldiok orain 5.500 urte, Europan baino 2.000 urte lehenago.

<http://ttiki.com/3057>

## Afrika mendebaldeko lehortea handiak ez dira aparteko gertakaria

Ghanako lakuetan dauden sedimentuak aztertuz, frogatu izan da joan den mendeko azken 30 urteetan gertatutako lehortea izugarriak ez direla hain arraroak izan. Bosumtbi lakuan sedimentuak bata bestearen gainean gorde dira, eta horrek ahalbidetu du inguru horretan azken 3.000 urtean izandako klimatologia ezagutzea.

<http://ttiki.com/3058>

**Babeslea:** iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16